

Ainhoa Larrea Unzain




■ Haurrak Sangnasa-n

"PISTARE-PISTARE" DENBORAK EZ DUEN LU



MAPA (INORDIKI)



HIMALAYAREKIN duzun lehenengo harremana buruan grabatuta geratzen omen zaizu betiko eta halaxe da. Pirinioetan eta Alpeetan galduta ibili ondoren, Himalayaren handitasunak liluratu egiten du edozein mendizale. Bidaia honetan urte askotako ametsak bilakatu dira egia eta bat-batean aurrealdean hain ezagunak diren zortzi milako mardul eta erraldoiak edukitzeak, hodei artean ibiltzeko sentsazioa sortarazten dizu barru-barruan. Paisaiaren edertasuna ez da Nepalen topatzen den erakargarritasun bakarra. Jendeak eta bere bizitzeko moduak berenganatu egiten zaituzte eta beste mundu baten eta bizitza ulertzeko modu baten aurrean ikusten duzu zeure burua. "Pistare-pistare", hori omen da Himalayako erritmoa, poliki-poliki, presarik gabe, uneak eskaintzen duen guztiaz gozatzen.

Irailaren 26an euskaldun-kataluniar-kanariar espedizioa Londresen bildu eta Kathmanduko bidea hartu zuen. Bidaia lueza izan zen, baina Kathmandura iritsi bezain laster, Luklara eramango gintuen abioneta hartu genuen.

Everesteko buelta egiteko asmotan joan ginen Nepalera eta Imja Tse edo Island Peak (6189 m) gailurra izango zen gure mendi erronka. Printzipioz, lurraldea ezagutzera gindoa zen, jendeaz eta paisiaiaz gozatzea, baina guztiok generaman barruan sei milako baten gailurra zapaltzeko desioa. Espedizio helburu gozoa zen hura, baina Island Peak-en magalera iritsi aurretik, metro ugariko aldapa zegoen egiteko.

Gure bertako kontaktua Pasang Temba *sherpa* zen. Bere esku utzi genituen antolakuntza lanak (karga eramateko zamariak, gure porteadoreak eta *sirdarra*...). Ongietorri epela egin zigun Tembak lasaitasunaren lurraldera.

Luklan ekin genion gure trekking-ari eta aurretik hemeretzi egun genituen inguruaz gozatu eta aski nekatzeko ere. Luklara iristean Nepaleko bizimoduan murgiltzea suposatzen du. Espedizio guztiak hasten diren lekua da eta mendi materiala saltzen duen hainbat denda dago, baina gehien harritzen zaituena porteoak egiteko modua da. Arraza mordoa dago eta dauzkaten bideetatik animaliak edo pertsonak bakarrik pasa daitezkeenez, bizkarrean eramaten dituzte gauza guztiak (beraien eguneroko bizitzarako behar dituzten gauzak, espedizioen materiala...). Kopetatik zintzilik daramate dena eta amaigabeko orduak ibiltzeko gai dira. Eguzkiaren erritmoa jarraitzen dute.



BALIORIK RRALDEA

■ Gokyo herria eta Cho Oyu mendia



■ Pakding herriranzko bidea

■ 1. eguna: LUKLA (2804 m)-PHAKDING (2623 m). 4 ordu

Luklan porteadoreak antolatzeak bere denbora eskatzen du, baina giroan sartzeko aukera ezin hobea da: kaleak ikusi, jendea begiratu, tea dastatu –Nepalen gure hidratatzeko modua izango dena... Namche Bazaar-eraino iristeko asmoa genuen, baina berandu abiatu garenez, Phakding-en lo egitea erabaki dugu.

Ibiltzeko eroso den bidea dago eta gehien harritu gaituena paisaiaren berdea da. Oraindik ere montzoi garaian gaude eta giro hezea oso nabaria da. Ibaiak lepo beteta datoz, ur jauziak ikusten dira edonon eta landareek kolore berde bizia dute. Hau guztia budisten errezo koloretsuekin nahasten da eta oso atsegina egiten den paisaiaz gozaten hasi gara. Ia 3000 metrotara gaude eta inguruan dagoen bizitzak liluratu egin gaitu.

Herrixka guztietan mendizale eta turistentzat prestatuta dauden lodge-ak daude. Berdintsuak dira guztiak: berogailua duen jangela ederra izaten dute eta lotarako logela txikiak, luxurik gabekoak, baina gehienetan goxoak.

■ 2. eguna: PHAKDING (2623 m)-NAMCHE BAZAAR (3440 m). 3 ordu 30 min

Goizeko 7:00etan gosaltzen dugu, gaueko euri jasek behar bezala lo egiten utzi ez diguten arren. Montzoiaren eragina nabari da. Monjo-raino Dudhkoshi ibaiaren ertzetik joan gara. Oso paseo polita da eta hamaika argazkitan ikusitako zubi luze mordoia pasatu behar izan dugu. Ikusgarria da karga daramaten yak abereak zubiak zeharkatzen ikustea. Bideko jauntxoak dirudite eta beraiek iristen direnean, bai mendizaleek eta bai bertakoek ere, pasatzen uzten diete. Etengabeko erritmoa daramate eta zubiak ezker-eskubi mugitzen dira haien pisuagatik. Zubiak errezo disista koloretsuez apaindurik ageri dira, bereziki Bhotekoshi eta Dudhkoshi ibaiak elkartzen diren lekuan dagoena.

Monjo-tik Namche Bazaar-era 600 metroko aldapa igo behar izan dugu eta hor bota ditugu lehenengo izerdiak. Kantza gure gidariak *pistare-pistare* joateko gogorazten digu.

Sagarmatha-ko Parke Nazionalako sarrera Thaog-en dago eta Namche Bazaar-era iritsi arte inguruan ikusten diren ur jauziak amaigabeak dira. Goialdean lainoa dago eta ez da ibai hauen jatorria ikusten. Zerutik datozen ur jauziak dirudite. Namche Bazaar-en trekking-erako baimena eskatu digute (hemen ere dena ordaindu behar da) eta eskualdeko hiriburuan gaude. Salerosketa asko egiten da hemen, denda eta merkatu ugari baitaude. Gure lodge-a herriaren goialdean dago, Tembaren etxean. Bista polita daukagu, baina herriaren gunera jaitea behin baino gehiagotan pentsatu behar da, altuera honetan ibiltzea geroz eta neketsuagoa baita.

■ 3. eguna: NAMCHE (2623 m)-KHUNDE (3850 m)-NAMCHE: 3 ordu

Montzoiak ez digu lehenengo gailurra egiten utzi eta, atertu bitartean denbora-pasa aritu gara lodge-an. Eguna luze egiten da zeruaren menpe bizi zarenean, baina urduritasuna baretzeko Khunde herriraino igotzea erabaki dugu. Bertan, Hillary-k irekitako ospitale bat bisitatzeko aukera izan dugu eta harrigarria egin zaigu horrelako herri batean garatzea lortu duten osasun sistema: maila guztietako zerbitzuak eskaintzen zaizkie inguruko herri-tarrei eta jaiotze kontrolak oso onuragarriak izan dira orokorrean.

■ 4. eguna: NAMCHE (2623 m)-MONG LA (3973 m)-DOLE (4200 m). Sordu 30 min

Gaurkoa egun berezia da: urriko lehenengo eguna dugu eta Ama Dablam handia konkistatzera doan espedizioari agur esango diogu Sangnasa-n (3753 m). Gurekin egin dute honainoko bidea, baina hemendik aurrera munduko gailur ederrenetako baten igoerari ekingo diote.



■ **Khumbu glaziarra**

Ez dugu euri gehiago izango bide guztian, baina lainoek oraindik ez digute paisaia guztiaz gozaten uzten. Mong La-ko bistak izugarriak omen dira, baina guk hodei artean pasatu dugu ia 4000 metrotara dagoen balkoi eder hau. Ama Dablam izugarriak keinu egin digu lainoen artetik eta horixe izan da ikusi dugun guztia. 4000 metrotatik gora gabiltza eta zuhaitz ezberdinez osaturiko baso misteriosu bat zeharkatzeko parada izan dugu. Harri-garria da horrelako altueran hain baso aberatsak topatzea!

■ **5. eguna: DOLE (4200 m)-MACHHERMO (4450 m). 2 ordu 30 min**

Gaurkoan bi aldaketa nabari izan ditugu: eguzkiak Nepalera ongietorria eman digu eta paisaia erabat aldatu da, basoak atzean utzi baititugu. Hemendik aurrera Himalayako mendi handienek agurtuko gaituzte eta aklimatazio lanak egiten hasi gara. Gaurkoan 4820 metrotara igo gara eta sei mila metroko hainbat mendi izugarri agertu digute beren edertasuna (Arakamtse 6423 m, Cholatse 6440 m eta Tawoche Peak 6542 m).

■ **6. eguna: MACHHERMO (4450 m)-GOKYO (4750 m)-GOKYO RI (5360 m). 6 ordu 30 min**

Trekking-eko egunik gogorrena izan da hau. Paisaia geroz eta lehorragoa egiten ari da, baina oraindik koloretako loretxoak eta kanela usaina hedatzen duten belarrak aurkitzen ditugu. Turkesa koloreko hiruzpalau laku pasatu ditugu eta gaurkoan Cho Oyu handia (8153 m) izan dugu aurrealdean egun guztian zehar. Bere handitasuna eta urdin koloreko elurrak edozein liluratzeko gai dira.

Gokyo-ra iristea naturaren opari bat da. Laku baten aldamenean dagoen herrixka da eta Norvegia bezalako herrialde batean zaudela dirudi. Zerbait jan ondoren, aklimatazioari jarraipena emateko Gokyo Ri-ra igo gara. Lehenengo aldia da 5000 metrotik gora igotzen naizela eta bi lagunek arazoak izan dituzte altuerarekin. Izugarria da nolako eragina izan dezakeen altuerak ongi prestatuturiko jendearengan. Batek baino gehiagok parranda osteko efektu berdinak agertzen zituen eta horren aurka egin daitekeen gauza bakarra altuera galtzea da. Ez dago besterik.

Gokyo Ri-tik Everesten hegoaldeko aurpegia, Lhotse, Makalu, Nuptse eta hainbat mendi izugarri ikusten dira. Eguzkia pixkanaka gordetzen ari da eta zeruak bere alde gorrixka erakusten digu. Paisaian ikusten den kolore aldaketa liluragarria da. Ilargia esnatu eta iluntzen hasi da. Beherako bidea luzea egin zaigu, gehienek buruko mina, goraka egiteko gogoa, e.a. sentitzen dugulako. Altueran ibiltzea ederra bezain gogorra da.

■ **7. eguna: GOKYO (4750 m)-DRAGNAK (4700 m). 2 ordu**

Atsedenerako eguna da gaurkoa. Bizpahiru orduko bidea besterik ez dugu egin, jendeari errekupeartzeko aukera eman behar baitzaio. Behin glaziarra izan zen eremu batean zehar ibili gara, hondar eta harri artetik. Dragnak hiru etxer osaturiko herrixka da eta eguzkitan lasai egoteko aukera izan dugu.

■ **8. eguna: DRAGNAK (4700 m)-CHO LA PASS (5330 m)-DZONGLHA (4840 m).**

7 ordu

Atzo lasai ibili ginen, baina gaurkoan berriz ere 5000 metrotatik gora igo gara. Igoera gogorra izan da, harri artean ibili garelako egun guztian zehar. Gure materiala eramateko porteadoreak hartu behar izan ditugu, yak abereak ezin direlako ibili bide hauetatik. 60-70 kiloko karga eramaten du porteadore bakoitzak bizkar gainean. Ezin sinestekoa da!

Gokyo harana atzean utzi eta Ama Dablam mendi ederrak bere aurpegirik politena erakutsi digu Cho La Pass-era iritsi garenean. Hurrengo egunetan ere

keinuka ariko zaigu. Bere paretetan ibiliko dira Inaki, Aitor, Inigo eta Alberto.

■ **9. eguna: DZONGLA (4840 m)-LOBUCHE (4930 m). 3 ordu**

Khumbu haranean murgilduta gabiltza eta gaurkoan Lhotse (8516 m) eta Pumo Ri (7161 m) mendiak ditugu paisaiaren jabe. Lobuche-ra iritsi garenean luxuzko lodge batekin egin dugu topo. Turismoa zaindu nahian, "Himalayan Chain Resort" sortu dute eta "luxuzko" hiru lodge ireki dituzte Everest-eko parkean. Egia esan, ostatu barruko epeltasuna aski eskertzen da.

Etxetik eramandako txorizo, gazta eta urdaiazpikoarekin afari ederra egin dugu eta hurrengo egunerako indarrak berritu ditugu, berriz ere 5000 metrotatik gora igoko baikara.

■ **10. eguna: LOBUCHE (4930 m)-KALAPATTHAR (5545 m)-LOBUCHE. 7 ordu**

Everest-eko balkoira igotzea da gaurko erronka eta Everest menditik gertuen egongo garen unea izango da. Ia bost ordu behar izan ditugu Kalapatthar-era igotzeko, baina bidaiako ikuskizun ederrenetarikoz gozatzeko aukera izan dugu: Nuptse mendi zoragarria, Khumbu glaziarra, Everest-eko kanpamendua, izotzeko kaskada eta, noski, Everest izugarria. Haizeak etengabe mugitzen dituen koloretako errezo budistek alaitasun berezia eskaintzen diote paisaiari. Lasaitasuna arnasten da altuera haieran. Paisaiak taxuz gozatu ondoren bakarrik ekin diogu jatsierari. Ongi egoten da han goian eta lodge-ra iritsi garenerako arratsaldeko 5ak ziren.

Zenbait taldekidek altueraren ondoeza sentitu eta beherantz jaistea erabaki dute. Horixe da mendiaren legea.

■ **11. eguna: LOBUCHE (4930 m)-KONGMA LA (5535 m)-CHUKUNG (4743 m). 7 ordu**

Kongma La-ko igoera oso astuna egin zaigu. Khumbu glaziarra pasatu ondoren, harriz jositako igoera egin behar izan dugu. Goialdetik ikuskizun ederra dago: turkesa koloreko hiru laku ikusten dira eta aurrealdean Ama Dablam, Makalu eta ... Island Peak (6189 m)! Geure helburua ikusten dugun lehenengo aldia da eta taldean nekea nabari da. Agian, geure erronka hain gertu ikusi ondoren,

■ *Imja Tse edo Island Peak mendia*



FOTO: BANCO DE IMAGENES, MINISTERIO DE EDUCACION Y CIENCIA



■ *Island Peak*

buruari buelta gehiegi eman dizkio batek baino gehiagok! Gainera, eguraldia txartu egin da bat-batean eta elurra hasi du.

Urdukitasuna nabari da, bihar geure erronka handiari ekingo diogulako. Ez dakigu zer gertatuko den.

■ **12. eguna: CHUKUNG (4743 m)-ISLAND PEAK-EKO KANPAMENDUA (5100 m). 3 ordu**

Eguraldi txarra izan dugu goiz-goizetik. Elurra ari du mara-mara eta goizeko 8:30ak arte ez gara abiatu. Hiru ordu behar izan ditugu kanpamendura iristeko eta sukaldea, dendak montatu bezain laster bildu gara denak jangelan. Elurra ez da gelditzen eta zerbait beroa jan ostean, zakuetan sartu gara, biharkoan eguraldiarekin zorte hobea izango dugula amestuz. Honaino etorri ondoren, penagarria izango litzateke eguraldiak gailurra egiteko saioa eskuetatik kentzea... baina horrelakoxea da mendia.

■ **13. eguna: OINARRIZKO KANPAMENDUA (5100 m)-AKLIMATAZIOA (5700 m)**

Zorte ona izan dugu! Hotz handia egiten du, baina ateri dago! Kanpamenduko bizitza gogorra da, baina gaurkoan azkeneko aklimatazioa egingo dugu. 5700 metrotara igoko gara eta lehenengo harremana izango dugu geure mendiarekin. Igoera ez da xamurra: harriz jositako aldapa eta, ondoren, eskuak eta hankak ezinbesteko bilakatzen diren igoera bat. Taldetxoak fuertea sentitzen da eta biharkoa izango da egun handia. Arratsaldeko lehenengo orduetan geure sukaldariaren janariarekin indarrak berritu eta zakuan sartu gara atseden hartzeko asmotan. Goizaldeko 1:30etan finkatu dugu irteera ordua.

■ **14. eguna: ISLAND PEAK EDO IMJA TSE (6189 m). 13 ordu**

Felipe, Arantzazu, Alejandro, Mikel, Felix, Xavier eta ni neu gara, Portseko Gyaltzen (geure *sirdarra*), Sarki eta Kantzaren laguntzarekin gailurrerantz abiatu garenak. Goizeko 2:00ak dira eta gauaren iluntasunean ekin diogu igoerari. Gau polita da, ilargi beteak gure pausoak errazten dituelako. Gauaz mendia igotzea errazago bilakatzen da, denboraren kontzeptua desberdina delako. Iluntasunak biltzen zaitu eta, hotz handia egiten duenez, ia atsedenik hartzeko paradarik ez dago.

Eguzkiaren lehenengo izpiekin mendiaren alderdi elurtura iritsi gara eta, kranpoiak jarri ondoren, bi soka-talde antolatatu ditugu.

■ *Taldea gailurrean*



ARGAZKIAK: AINHOA LARREA, UNZAIN

Gyaltzen *sirdar* aparta daramat aurrealdean eta gustura noa bere babesean. Ezin da hitzekin deskribatu jende honek egiten duen lana.

Hiru soka finko pasatu behar izan ditugu. Lehenengoa izan da hiruretan gogorrena. Oso tarte luzea zen eta denbora eraman digu gainditzeak. Beste biak pasatzea errazagoa izan da eta, azkenean, hortxe topatu dugu gailurra!!! Zaila da hitzekin deskribatzea une horietan sentitzen den emozioa. Hain txikia sentitzen zara handitasun horren erdian... Bertan ikusten da Lhotse mendiaren hegoaldeko aurpegia eta hatz puntekin zerua ikutzeko zorian gaude!!!

Argazkiak atera eta uneaz gozatu ondoren, beheako bideari ekin diogu. Hura bai ibilaldi amaigabea! Bidaian zehar egindako metro bakoitza gogoratzeak aukera izan dut eta neka-neka eginda iritsi naiz kanpamendura. Ospakizun xume baina hunkigarria egin dugu kanpamenduan. Kathmandura iritsi bezain laster ospatuko dugu bidaia honetan ikusi, entzun, sentitu eta lortutako guztia.

■ **15. eguna: ISLAND PEAK-EKO KANPAMENDUA (5100 m)**

Deskantsatzeko eguna. Egindakoaz luze hitz egiteko tenorea.

■ **16. eguna: ISLAND PEAK-EKO KANPAMENDUA (5100 m)- PANGBOCHE (4252 m). 6 ordu 30 min**

Gailurra lortu ondoren bidaiak beste zentzu bat hartu du. Turista gehiago dagoen inguru batera hurbildu gara eta Dingboche (4350 m) bisitatzeko aukera izan dugu, Nepaleko Tenplu Budistarririk handiena.

■ **17. eguna: PANGBOCHE (4252 m)-PHORTSE (3800 m). 5 ordu 30 min**

Phortseko Gyaltzen geure *sirdarrak* bere etxean hartu gaitu eta festa ederra egin dugu. Gailurra ospatu, bidaiako esperientziak konpartitu eta hamasei egunetan gurekin egon den *sirdar* leial honen laguntasuna eskertzeko aukera izan dugu. Bertako jendearekin gau zoragarri bat pasatu dugu, hango janari, edari, musika eta dantzaz gozaten.

■ **18. eguna: PHORTSE (3800 m)-NAMCHE BAZAAR (3440 m). 7 ordu**

Oraingoan Pasang Tembaren etxean esan digute agur. Egia esan, jende honek bere etxe eta bihotzeko ateak irekitzen dizkie bisitariei.

■ **19. eguna: NAMCHE BAZAAR (3440 m)-LUKLA (2804 m)**

Oso egun luzea izan da eta turista mordoak dabil bidean. Arraroa egiten da hainbeste jenderekin topo egitea. Hementxe bukatzen da gure abentura eta hurrengo hiru egunetan Kathmandu eta bere inguruak ezagutuko ditugu. Nepaleko kultura, bizimodua, janaria... hainbeste dago oraindik ezagutzeko. □

FITXA TEKNIKOA:

Data: 2003ko irailaren 26tik urriaren 19ra.

Antolatzailea: Mendiak eta Herriak mendi gidari elkarte.

Gidaria: Felipe Uriarte.

Partaideak: Arantzazu Ibarrondo, Mikel Uranga, Mikel Real, Koro Resa, Felix Diaz, Toni Camprecios, Maria Cristina Suñol, Jordi Camprecios, Xavier Gassó, Toto Cusó, Oriol Gassó, Maria Guardino, Alejandro Morales, Ainhoa Larrea.